

***GAZTE EKINTZAILETZARAKO BEKEN
DEIALDIA
2026***

ATARIKOA

2017ko uztailaren 19an, Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Herriko Unibertsitateak oinarritzko hitzarmena sinatu zuten “gaitasun profesional handiagoa lortzeko, unibertsitateko titulazio ofiziala lortuta edo 2017/2018 ikasturtean gradu azken ikastaroan matrikulatutako ikasleek enpreetan jasotako prestakuntzaren bidez, hezkuntzaren mundutik lan eta ekintzailatzarenera iragateko bekak eskainita”.

Aipatutako hitzarmenaren helburua da Enplegu eta Gizarte Politiketako sailaren eta Hezkuntzako sailaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko lankidetzak, “Hezkuntza- arlotik lan-arlorara igarotzea” eta “Gazte ekintzailatza” izeneko bi programa abian jartzeko. Hauen bidez, hezkuntzaren arlotik lanaren arlorara iragateko esperientzia eskaintzeaz gain, ikasleek gaitasun handiagoa lortu ahal izango dute gradu azken ikastaroan edo unibertsitateko titulu ofiziala lortu berri dutelarik.

2017/2018 ikasturtean abian jarri zen lehen deialdiaren ondoren, hurrengo ikasturteetan ere segida eman zaio programari; eta 2026/2027 ikasturte honetan ere jarraituko du. Kontutan hartuta “Hezkuntza-arlotik lan-arlorara igarotzea” programak deialdi eta esleipen prozedura espezifikoak dituela, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak erabaki du “EHU Gazte Ekintzailatzarako Bekak 2026” programaren deialdia onartzea eta abian jartzea ondoren zehazten diren baldintza hauen arabera.

1. OINARRIA. DEIALDIAREN HELBURUA

“Gazte Ekintzailatzarako Programa” enpresa arloko ideia edo ekimenak laguntzea izanen du helburu, gehien dela 35 ekimen bultzatuz. Honetara, ekintzailatzaren kultura zabaltzea eta aktibatu nahi da bekak jasoko dituzten ikasleen artean, unibertsitatearen eremuan sor litezkeen enpresa ekimenak laguntzeko.

2. OINARRIA. BALDINTZAK

1. Parte hartu ahal izango dute programan EHUKo titulatu eta ikasleek baldin eta azken hiru akademi ikasturteetan (2023/2024, 2024/2025 eta 2025/2026) **unibertsitateko titulazio ofiziala** (gradu, masterra edo doktoretza) lortu badute, edo 2026/2027 akademi ikasturtean hauen azken ikasturtean, matrikulatuta badaude.
2. Programaren aurreko bi deialdietan beka honen onuradun izan ziren pertsonak ezin izango dira beka hauen onuradun izan 2026ko deialdian.
3. Beka eskatzen duten pertsonak denbora nahikoa izan beharko dute, alde batetik, bekarekin lotutako jardueretan parte hartu ahal izateko (ekintzailatza ikastaroa eta mentoring programa barne) eta, bestetik, programara aurkezteko diren proiektuaren garapenean lan egiteko.
4. Programa honetan parte hartu duten proiektuetatik sortutako enpresek EHUKo spin-off sareko kide izatea onartu beharko dute, EHUKo Transferentzia eta Berrikuntza webgunean eskuragarri dagoen formularioaren bidez (<https://www.ehu.eus/eu/web/enpresa/spin-off-sortzeko-formularioa>)

3. OINARRIA. PROIEKTUEN TIPOLOGIA

1. Deialdi honetako laguntzarik jaso ahal izango dute:

- a) Heltze fase ezberdinetan (abiatze fasea edo hazkuntza fasean) diren enpresa proiektu edo ekimenak: ideia balioesteko fasearekin hasi, bideragarritasun plana garatu, start-up abiatu eta/edo garatze fasean diren proiektuak, finantzaketaren lehendabiziko txandetan.
- b) EHUKo ikertzaile edo ikasleen lankidetzaz enpresa berrikuntza helburu garatzen ari diren proiektuak.

2. Lehenetsuna izango dute profil zientifiko teknologikoa izango duten enpresa proiektu edo ekimenek edo merkatuari begirako berrikuntza maila esanguratsua dutenak.

4. OINARRIA. BEKAREN ZENBATEKOA

1. Hautatuko diren proiektuetako ikasle edo titulatuak 3.600 eurotako laguntza ekonomikoa jasoko dute (ordainketa bakar batean), PFEZri dagokion ordainketa minimoaren % 2ko atxikipena kenduko zaiolarik. Onuradunen ardurapean geratzen da PFEZaren ordainketarako zenbateko handiagoa gordetzea hala badagokio.

2. Gainera, EHUK mentoreen sare bat jarriko du beren esku, proiektua garatu ahala, aholkularitza profesionala eskainiko diena, eta formakuntza espezifiko antolatuko du ekintzailetzari buruz, bertan nahitaez parte hartu beharra izanik.

Formakuntza honetan ez lukete parte hartu beharko ezinbesteko kausak egiaztatuko luketen onuradunek, hau da, planifikatu gabekoak eta azken orduan sortutako egoerak. Edozein kasutan, derrigorrezkoa izango da mentoring programan parte hartzea.

Bai prestakuntzara joatea bai mentoretza-saioetan parte hartzea nahitaezkoak dira programa honetan parte hartzen duten guztientzat. Ezinbesteko arrazoiak direla-eta, parte-hartzaileran bat prestakuntzara puntualki joatea eragozten duten kausak agertzen badira bakarrik baloratu ahal izango da prestakuntzara ez joatea. Beti izango da nahitaezkoa mentoring programan parte hartzea.

3. EHUK ziurtatuko du programan parte hartuko dutenak istripuetarako aseguru bat sinatuta dutela, proiektuak dirauen bitartean litezkeen arrisku nagusiak estaliko lituzketenak, bai eta kontzeptu honengatik eratorritako gastuak gain hartu ere.

4. Beka onuradunaren izaera pertsonala eta besterenganaezina da. Hortaz, deialdia ebatziko duen erabakiarekin batera argitara emango den onuradunen zerrenda behin betikoan agertutako NAN zenbakiei dagokien pertsonak ez beste inork jasoko du bekaren zenbatekorik, ez eta bekari loturiko bestelako onurak ere (ekintzailatza ikastaroa eta mentoring programa). Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa transferentzia bidez ordainduko da, beka onuraduna titular izango duen banku kontu batean. Ez zaio inola ere ezelako zenbatekorik ordainduko edozein eratako enpresa zein elkarteri.

5. OINARRIA. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Proiektuak honako irizpide hauen arabera balioetsiko dira:

- a) Proposamenaren profil zientifiko teknologikoa edo berrikuntza maila (40 puntu).
 1. Garatu beharreko produktu edo zerbitzuaren tipologia. Egungo eskaintzarekiko desberdintasuna. Abagunea (20 p.).
 2. Produktu edo zerbitzuaren garapen maila: Kontzeptu proba, prototipoa, merkatu testa eta abar (15 p.).
 3. RIS3 sektoreekiko lerrokatzea (5 p.).
- b) Negozio ereduaren balio proposamena (30 puntu).
 1. Merkatu potentziala. Tamaina (10 p.).
 2. Balio katea: hornitzaileak, bezeroak, lehiakideak eta preskriptoreak (10 p.).
 3. Merkaturatzeko estrategia (10 p.).
- c) Ekintzailea / talde sustatzailea (20 puntu).
 1. Gaitasun teknikoa eta/edo gestiorakoa, proiektuaren eremuan (10 p.).
 2. Ekintzailearen / talde sustatzailearen konpromisoa (10 p.).
- d) Garapen Jasangarriko Helburuekiko lerrokatze maila (10 puntu).

6. OINARRIA. PROIEKTUEN HAUTAKETA

1. Ondoko kide hauek osatuko dute hautaketa batzordea:

- Arabako Campuseko Ekintzailatza, Enplegarritasun eta Transferentziako zuzendaria.
- Bizkaiko Campuseko Ekintzailatza, Enplegarritasun eta Transferentziako zuzendaria.
- Gipuzkoako Campuseko Ekintzailatza, Enplegarritasun eta Transferentziako zuzendaria..
- Berrikuntza eta ETB zuzendaria.
- Gazte Ekintzailatzarako Programaren arduradun akademikoa.

2. Hautaketa batzordeak, eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa aldeztatik aztertuta eta egin beharreko eztabaidak egin ostean, hartu beharreko erabakiak hartuko ditu eta bileretako aktetan jasoko. Aipatutako eztabaiden edukia ez da publikoa izango, ez eta, inola ere, eskatzaileei jakinaraziko ere.

3. Hautaketa-batzordeak bekaren eskatzaileei elkarrizketa pertsonalerako deia egiteko ahalmena izango du, egoki irizten diotenean, aurkeztutako proiektuei buruzko informazio gehigarria biltzeko. Batzordeak ezarritako epean elkarrizketa horretan parte hartzen ez duten eskatzaileak hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango dira.

4. Hautaketa batzordearen erabakiak proiektuei emandako puntuazioetan oinarriturik hartuko dira.

5.- Hautaketa batzordeak ahalmena izango du sor litezkeen eta oinarriotan arautzen ez diren arazo guztiak interpretatzeko eta hartuko dituen erabakiak ustezko legezkotasuna izango dute eta oinarri hauetako edukiarekin bat etorriko dira.

6.- Hautaketa batzordeak erabakiaren proposamena helaraziko dio Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko Errektoreordeari, deialdi honetako 8. oinarrian eskariak aurkezteko jasotako epea amaitu eta, gehien dela, 30 lanegun iragan baino lehen.

7. OINARRIA. KONPROMISORAKO DOKUMENTUA

1. Bekaren onuradun guztiek konpromisorako dokumentu bat formalizatu beharko dute, non zehaztuko baitira programa honetan parte hartzeaz batera bere egiten dituzten betebeharrak guztiak.

2. Dokumentu honetan jasotako konpromisoren bat bete ezean, berori sinatzen duen onuradunak onartzen du beka programatik kanpora egozte. Arestikoaz bat, bekari loturiko onurak jasotzen ezinaz gainera, EHUri itzuli beharko zaio beka gisa jasotako laguntza ekonomikoa eta, halaber, eskatzailea ezin izango da aurkeztu “Gazte Ekintzailetzarako Bekak” deialdi berrietara.

8. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEA

1. Deialdi hau EHUren Praktikak, Prestakuntza Duala eta Enplegarritasuneko atarian (<http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua>) argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da eskariak aurkezteko epea eta 2026ko irailaren 20an, 23:59etan amaituko da.

2. Parte hartzeko eskariak <https://www.ehu.eus/eu/web/enplegua/gazte-ekintzailetza-bekak> webgunean eskura daitekeen **formularioa beteta** aurkeztuko dira. Eskariarekin batera, honako dokumentazio hau agertu beharko da:

- Enpresa proiektua justifikatzeko **Memoria, I. eranskin** gisa atxikita doan gidoiari jarraituta. Dokumentu honen luzera ez da inola ere 10 foliotatik gorakoa izango. EHUk eta harekin zerikusia duten enpresa, zentro teknologiko edo bestelako erakundeek sinatutako lankidetzak-hitzarmen bati lotutako proiektuen kasuan, sinatutako hitzarmena eta aurkeztutako proiektuaren eta haren helburuen arteko lerrokadura aipatu beharko dira.

3. Formularioa bete eta eskaera webgunearen bidez bidali ondoren, pauso hauek eman behar dira:

- Eskatzaileak web-orrian egindako aurkezpenaren **frogagiria jasoko du**, eskaeran jakinarazpenetarako zehaztu duen helbide elektronikoan.
- Mezu elektroniko hori behin jasota, **igorri** beharko da, **PDF formatuan, Enplegu Guneetara (U02000340) EHUko Erregistro Elektronikoaren bidez** (modu lehenetsia); edo, EHUren edozein Erregistro Orokorretan aurkeztuta (EHUren 2007ko maiatzaren 28ko erabakia - 2007ko abuztuaren 3ko EHAA); bestela, Administrazio

publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legearen 16.4 artikuluari jarraiki.

Aurreko pasartean adierazitako bideetatik telematikoki bete, erregistratu eta Enplegu Guneetara (U02000340) bidali ez diren eskariak **AURKEZTU GABETZAT JOKO DIRA**.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan adierazitakoaren arabera, dokumentuak ezarritako epearen barruan aurkeztu behar dira, ahal den guztietan EHUKo erregistro elektronikoaren bitartez (<https://egoitza.ehu.eus/opencms/system/modules/sede/index?lang=eu>).

Horretarako, identifikazio elektronikorako sistema hauetakoren bat erabili behar da: a) Izenperen ziurtagiri digitala; b) EHUKo txartela (Izenpe); c) NAN elektronikoa; edo, d) Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES).

Era berean, beste toki hauetan ere aurkeztu ahal izango da eskaera: a) sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan; b) erregistro gaitan laguntzeko EHUKo edo sektore publikoko edozein erakunderen bulegoetan, aurrez aurre, funtzionario publiko gaituaren bidez; c) posta bulegoetan; eta, d) Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatikoetan edo bulego kontsularretan.

Erregistro gaitan laguntzeko EHUKo bulegoetan aurrez aurre aurkeztu diren dokumentuak digitalizatu egingo dira administrazio espediente elektronikoan sartzeko, eta jatorrizkoak interesdunari itzuliko zaizkio, interesduna funtzionarioaren aurrean identifikatu eta horrela jarduteko adostasun espresua adierazi ondoren, bat etorrita EHUKo idazkari nagusiaren 2021eko apirilaren 28ko Erabakian adierazitakoarekin. Erabaki horrek onartu egiten ditu gai hauei buruzko jarraibideak: erregistro gaitan laguntzeko bulegoak; eskaerak, idatziak edo bestelako komunikazioak funtzionario publiko gaituaren bidez aurkeztea EHUKo; eta funtzionario publiko gaituaren erregistroa.

9. OINARRIA. ONARTUEN ETA BAZTERTUEN ZERRENDAK

1. Onartutako eta baztertutakoen behin-behineko zerrendak.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztutako eskaerak aztertuko dira. Analisi hau amaitu eta gero, Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak EHUKo Praktikak, Prestakuntza Duala eta Enplegarritasuneko atarian argitaratuko du behin-behineko eskari onartu eta baztertuen zerrenda.

Behin-behineko zerrenda argitaratu eta gero, eskatzaileek 10 lanegunen epea izango dute, norberaren eskaria kontutan hartuta, eskatu zaizkion atalak osatu edo zuzentzeko.

2. Onartutako eta baztertutakoen behin betiko zerrendak.

Okerrak zuzentzeko epea amaitu eta agertutako dokumentazioa aztertu ondoren, bertan behera utzitzat hartuko dira epean eta formaz zuzendu edo osatu ez diren eskariak. Ebaluazio fasera iragateko behin betiko zerrenda EHUKo Praktikak, Prestakuntza Duala eta Enplegarritasuneko atarian argitaratuko da.

10. OINARRIA. ESKARIAK EBAZTEKO PROZEDURA

1. Deialdi hau Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko Errektoreordearen erabakiaren bidez ebatziko da, deialdi honen 6. oinarrian aipatutako hautaketa batzordeak proposamena eginik. Erabakiarekin batera eranskin bat osatuko da, beka esleipendun suertatu diren pertsonen zerrenda jasotzeko, NAN zenbakiaz eta aurkeztutako proiektuaren izenaz identifikatuta.

Bekarik jaso ez duten eskatzaileek, aurkeztu beharreko eskaria aurkeztuta, jakin ahal izango dituzte hautaketa batzordeak bere proiektuari esleitu zaion puntuazioa eta suertatu den gutxieneko puntuazioa, hautatu den azken proiektuari emandakoa.

2. Erabaki hau webgunean jakinaraziko da eta eskatzaileei jakinaraziko zaie, deialdi honekin lotutako komunikazioetarako eman duten posta elektronikoko helbidera bidalita.

3. Gainera, erabakia EHUren Praktikak, Prestakuntza Duala eta Enplegarritasuneko atarian argitaratuko da (<http://www.ehu.eus/eu/web/enplegua>). Honako deialdi honetako 11. oinarrian aurreikusitako epeak zenbatzeko baliatuko da aipatutako webgunean noiz argitaratu den.

11. OINARRIA. ERREKURTSOA

Administrazio bidea agortzen duen erabaki honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsorik aurkez daiteke hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, guztia Administrazio publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 legeak zehaztutakoaren babesean.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsorik jar daiteke bi hilabeteren epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Berraztertze errekurtsorik jarri berraztertze errekurtsoren ebazpen espresa eman edo presuntziozko ezespena gertatu arte.

Leioan sinatua, sinadura elektronikoaren datan

Estitxu Garai Artetxe

Bizkaiko Campuseko eta Komunikazioko Errektoreordea